

**BERGARAKO UDALA ETA
.....KIROL ELKARTEA**

**HITZARMENA
BERGARAKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA SUSTAZEKO**

Begaran, 2013ko urriaren 2an

BILDURIK

Alde batetik, Jaione Isazelaia Igartua andrea, NAN15.359.324-Q zenbakiduna, Begarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren ordezkaria izanik.

Eta bestetik,, NAN zenbakiduna etakirol elkarteko lehendakaria.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta honako hau

AZALTZEN DUTE

Alkateak 2013ko apirilaren 30ean emandako dekretuan onarturiko "Begarako Udala kirol zerbitzurako Plan estrategikoa 2013-16" dokumentuaren sarreraren 3. puntuan honako hau jasotzen da:

Begarako kirol elkartegintza.:

"Begarako eta inguruko herrietako kirol elkarteen berrikuntza edo modernizazioa bultzatzeko beharrezkoak diren ekimenak jasoko ditu ardatz honek. Udalaren (Kirol Zerbitzuaren) eta elkartegintzaren arteko harremana arautzeko oinarri berrien diseinua eta elkartegintzaren berrantolaketa prozesua ere ardatz honetan jorratuko dira".

Ondoren, Planaren testuinguruari dagokion puntuan, honako hau jasotzen du Plan Estrategikoak:

Planaren garapena ondoko ideietan oinarrituko da:

- *Begara herri aktiboa: kalitatezko jarduera fisikoa eta kirola sustatzen duen herria da.*
- *Zeharlerrotasuna; jarduera fisikoa eta kirola beste alorrekin duen lotura indartu, hala nola, osasuna, hezkuntza, kultura, integrazio soziala, hirigintza eta turismoa.*
- *Partaideitza: planaren egitasmoak herritarren eta eragile ezberdinen partaidetza bermatuz garatu behar dira.*
- *Koordinazioa: plana arrakastaz burutzeko koordinazioa beharrezkoa da; koordinazioa maila ezberdinetan: herri mailan eragile ezberdinen artean, Udal eremuan alor ezberdinen artean, eta eskualde mailan gainontzeko herri eta Udalen arteko lankidetzak bultzatuz.*

Planteamendu honi jarraituz, 2013. urterako, Begarako Udalak herrian aritzen diren kirol elkartei —eta beraiekin adostu ondoren Udalak diru-laguntzak emateko erabiliko dituen irizpideak— hitzarmenak sinatzea proposatu die, bertan amankomunean dituzten helburuak zehazteko, eta elkarlana arautzeko baldintzak ezartzeko.

Diru-laguntzak banatzeko adostutako irizpideak honakoak izan dira:

1) Lizentzia edo/eta talde kopurua. 2) Entrenadore edota monitore kopurua, eta hauen formazio ofiziala, 3) Bazkide kopurua, 4) Aurrekontuaren egokitasuna. 5) Antolatzen dituen asteroko entrenamendu, saio zein partidu-lehiaketak. 6) Eskola kirolean egiten duen ekarpena. 7) Antolatzen dituen ekintza puntualak. 8) Udalak antolatutako ekintzetan ematen duen laguntza. 9) Elkarteak herrian duen eragina. 10) Udalarentzako interesgarriak izan daitezkeen beste inizatibak.

Ondoren kirol elkarteek beraien egitasmoak eta diru-laguntza eskaerak aurkeztu dituzte eta aztertu ondoren, Alkateak 2013ko n emandako dekretu baten bitartez erabaki du diru-laguntzak emateko udal aurrekontuan jasotako diru-izendapena nola banatu, eta baita elkarte bakoitzarekin hitzarmena sinatzea.

Gauzak horrela, honako klausulak dituen hitzarmena adostu dute:

KLAUSULAK

Lehena: Hitzarmen honen bitartezkirol elkartearen eta Bergarako Udalaren arteko 2013. urteko lankidetzaz zehazten da.

Bigarrena:kirol elkarteak konprometitzen da, Bergaran, jarduera fisikoa eta kirola bultzatzera, giza kohesioaren alde bere ekarpena egiteko; Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoa eta Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuko araudiak errespetatuz, eta arreta berezia emanez Eskola Kirolaren arloan indarrean dagoen legediari.

Hirugarrena: Euskararen erabileraren inguruan, honako hizkuntza irizpideak betetzeko konpromisoa hartzen du elkarteak:

- Mezu idatziei dagokienez (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka), euskaraz edo ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatziko dira. Beti eduki beretsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez; eta ele bietan egiten direnen kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Testuak hizkuntza aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman beharko dira.
- Ahozko komunikazioetan ere euskara hutsa erabiltzera joko da eta bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna erdarazkoaren aurretik azalduz eta, mezua errepikatzen denean, erdarazkoa baino bi aldiz sarriago, behintzat, emanez.

Laugarrena: kirol elkarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko honako konpromiso hauek hartzen ditu, kirol praktika egituratuetan eta ez-egituratuetan (eskaintzan, giza-baliabideetan eta baliabide ekonomiko eta materialen banaketan):

Sexua edota sexualitatea tarteko ez duela bereizkeriarik egingo; eta horrelako kasuren bat elkartearen ezagutuko balitz (arazoa agertu delako, edo kexaren bat jaso delako), egoera aztertu egingo da Udalaren eta kirol elkartearen artean, eta

desberdintasunak daudela ikusiz gero neurriak hartuko dira guztien eskubideak maila berean errespetatu daitezzen.

Antolatzen diren ekintzetan emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta egitera doazen kirol ekintzak sexu bakar baten parte hartzea arautzen ez badu behintzat (emakumezkoen kirol taldeak, gizonezkoen gizon taldeak...). Edozein eratan, elkarteak antolamendua erabiltzaileen ezaugarrietara egokituko du, eta antolamendu horretan ez du sexuaren araberako lehentasunik emango (ariketen ezaugarriak, erabiltzen den materiala, ordutegiak, etab.)

Komunikaziorako erabiltzen diren euskarrietan (kartel, pegatina, aldizkari, webgune, sare sozial, etab.) zein eguneroko harremanetan komunikazio barneratzailea /integratzailea erabiliko da. Hau da, hizkuntzaren erabilera egokia egingo da emakumeak bigarren mailako bihurtu gabe, irudiek estereotipoak gainditzen dituztela bermatuko da, eta mezuetan esaten dena zainduko da.

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan gizonak eta emakumeak egongo dira. Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epai-mahaietan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza baldin badu.

Estamentu guztietan (begirale, entrenatzaile, epaile, kudeatzaile, batzordekide etab.) emakumeak eta gizonak egon daitezzen lan egingo da.

Elkartearen zuzendaritzan emakumeen presentzia bultzatzeko ahalegin berezia egingo da.

Bosgarrena: Elkarteak 2013. urtean, edota 2012-13 denboraldian, bere ardurapean edota dagokion federazioarekin batera honako ekintza hauek antolatuko ditu:

a) 2013ko urte osoan zehar.

Zer	Norentzat	Bai	Ez
Astean zehar formazioa eta entrenamenduak.	6-12 urte		
	12-16 urte		
	+16		
Lehiaketa ofizialak.	6-12 urte		
	12-16 urte		
	+16		
Lizentzien tramitazioa			
Besteak			

b) Ekintza puntualak

Zer	Norentzat	Izena	Partaide kopurua
Torneo, lehiaketa, txapelketa puntualak	6-12 urte		
	12-16 urte		
	+16		
Sustapen ekintzak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak...	6-12 urte		
	12-16 urte		
	+16		
Besteak			

Begarako Udalarekin batera parte hartuko du

Zer	Norentzat	Zein ekarpen egiten du	Zenbat lagun
Eskola kirola, kirol aniztasuna.	6-12 urte		
Uda kanpaina			
Kirola kalera eguna			
Besteak			

Seigarrena: Elkartea jakitun da klubien egiturak eta ekintzak laguntzeko aurreikusitako diru-kopuru osotik % 10 gordeko dela (... euro) euskararen erabileraren arabera banatzeko.

Horretarako, ohiko entrenamenduak eta partiduak (baita kirol-eskoletakoak ere), eta entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak izango dira kontuan.

Hartuko den adin-tartea: 18 urtez azpikoak.

Puntuazio-sistema: Finkatutako diru-kopurua honelako puntuazio sistemaren arabera banatuko da:

- Entrenamenduak eta partiduak
 - Kirolari kopurua, entrenatzailearen hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz, 1 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena euskaraz, 0,75 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena gaztelaniaz, 0,25 puntu kirolari bakoitzeko; eta gaztelaniaz, 0 puntu. Entrenatzaile bat baino gehiago badago taldeko, entrenatzaileen batez bestekoa izango da kontuan, puntuak emateko.
 - Entrenatzaile kopurua hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz dabiltzanak, 4 puntu; gehiena euskaraz dabiltzanak, 2 puntu.
- Entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak: Bergaran jaiok edo Bergaran entrenatzen dutenek euskaraz jasotako

prestakuntza orduen arabera: 4-20 ordu euskaraz, 1 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 20-50 ordu euskaraz, 2 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 50-100 ordu euskaraz, 3 puntu entrenatzaile bakoitzeko; eta 100 ordutik gora euskaraz, 4 puntu entrenatzaile bakoitzeko.

- Neurketa sistema
 - Denboraldi hasieran klubeko arduradunekin edo entrenatzaileekin bilera bat egingo da eta taldeari eta entrenatzaileei buruzko informazioa jasoko da, entrenatzaileek beteko duten fitxa baten bidez. Prestakuntza-ikastaroei buruzko informazioa, berriz, denboraldi amaieran jasoko da, horretarako beteko den fitxa baten bidez.
 - Ikasturtean bi neurketa egingo dira eta dirua denboraldi amaieran banatuko da.

Neurketa-modua orain arteko bera izango da: Euskara Zerbitzuak ebaluatuko du galdeketa eta behaketa bidez. Klub bakoitzak arduradun bat izendatuko du, eta kontraesanik izanez gero, adostu egingo dira.

Irizpide horren arabera elkarte bakoitzari dagokion kopurua 2013ko ...n zehaztuko da eta ordainketa azken zatia batekin batera egingo da.

Zazpigarrena: Begarako Udalak kirol elkartearen errealitatea, jarduna eta diru-kontuak barrutik ezagutu ahal izango ditu. Hau dela-eta, kirol elkarteak zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu, Begarako Udaleko erregistroan, 2013ko azaroren 30a baino lehen:

a) Kirol memoria, izandako talde edota kirolarien zerrenda. Dagokion federazioaren agiria, denboraldian izandako lizentzia kopurua eta mota zehaztuz. Antolatutako ekintzen txosten laburra (balorazioa, partaideak, aurrekontua, prentsan izandako eragina...)

b) Memoria ekonomikoa. Ondoko dokumentuak izan beharko ditu, gutxienez:

- Denboraldiaren balantzea.

- Diru-gastuen zerrenda. Zerrenda horretatik, Udalak aukeratuko du zein gastu-agiri (orijinalak edo kopiak) eskatu.

- Diru-sarreraren zerrenda. Jasotako bestelako diru-laguntzen zinpeko aitortpena. Bertan ondo bereiziko dira jasotako diru-sarrerak eta horien finantziazio-iturriak.

Zortzigarrena: Begarako Udalak, [redacted] instalazioa erabiltzen utziko dio kirol elkarteari, entrenamendu zein lehiaketa egin ahal izateko.kirol elkarteak izango da aipatutako egun eta orduetan erabilera desegokia dela-eta izan daitezkeen kalteen arduraduna eta erantzulea. Betiere, erabiltzen duen instalazioan gorabeheraren bat izanez gero, Begarako Udalarik jakinarazi beharko dio kirolak@bergara.net helbidean, 24 orduko epean, sortutako kaltea.

Bederatzigarrena: Begarako Udalak XXXXX euro emango dizkio kirol elkarteari, laguntza gisa.

Ordainketa bi zatitan egingo da: 1. zatia, laguntzaren % 60, hitzarmena sinatzerakoan; eta 2. zatia, 2014ko urtarrilaren 31 baino lehen, hitzarmena bete badu, egitasmoan planteatutakoa bete badu eta Udalak eskatutako agiriak aurkeztu baditu Begarako Udaleko erregistroan azaroaren 30a baino lehen.

Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

Hamargarrena:..... kirol elkarteak publikora begira egiten dituen kartel, programa, web, ekitaldi, eta abarretan Begarako Udalaren laguntza duela toki nabarmenean agertzeko konpromisoa hartzen du.

Hamaikagarrena: Begarako Udalak ez du bere gain hartzen hitzarmen honetan espresuki agertzen ez den erantzukizunik.

Hamabigarrena: kirol elkarteak hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu, hitzarmen hau bukatutzat emango du Udalak, eta ordaintzeko geratzen diren laguntzaren zatiak ez ditu ordainduko, eta jasotakoak itzultzea eskatu ahal izango du.

Hamahirugarrena: Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Hamalauugarrena: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamabostgarrena: Bergarako Udalak diru-laguntzaren zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru-kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Hamaseigarrena: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta indarrean dagoen gainontzeko legedia aplikatuko da.

Horrela jasota gera dadin eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

Jaione Isazelaia
Bergarako Alkatea

.....
..... Kirol elkarteak